

2020/2021eko IKASTURTEA

ENPRESAREKIKO HARREMANAK:

1. HELBURUA: Hezkuntza lankidetzan ikasleen balorazio orokorra 4,4koa izatea.

Ekintzak:

- Ikasleei informazioa eta laguntza ematea praktikak bilatzen eta esleitzen.
- Praktikan sor daitezkeen gorabeherei erantzutea eta horien gainean jardutea, hala dagokionean.

Arduraduna(k):

- Enpresekiko Harremanen arloko zuzendariordea

2. HELBURUA: Hezkuntza lankidetzan enpresen balorazio orokorra 4,4koa izatea.

Ekintzak:

- Enpresei informazioa ematea eskolan eskaintzen diren titulazioei buruz eta dagozkien lanbide profilei buruz.
- Enpresei laguntzea praktikak eskaintzeko, baliozkotzeko eta kudeatzeko prozesuan.

Arduraduna(k):

- Enpresekiko Harremanen arloko zuzendariordea

3. HELBURUA: Ondo itxitako praktiken tasa % 80 iztea.

Ekintzak:

- Irakasleekin koordinatzearen eta praktikak behar bezala ebaluatzearen garrantzia azpimarratu tutoreei.

Arduraduna(k):

- Enpresekiko Harremanen arloko zuzendariordea

NAZIOARTEKO HARREMANAK:

1. HELBURUA: Abiatu aurretik ikasleen balorazio orokorra 4,75 izatea lortzea.

Ekintzak:

- Webguneko informazioa eguneratzea, atal berriak gehituz, bat hizkuntzei buruzkoa eta bestea, esteka gehiagorekin, unibertsitateen informaziorako errazteko.
- Nazioarteko programei buruzko informazio kanpaina: 3 bilera orokor (4 urrian). Gradu eta masterreko bilerak.
- Buddy Programan parte hartzeko beharraz kontzientziatzeko kanpaina areagotzea.

Arduraduna(k):

- Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea
- Nazioarteko Harremanetako teknikaria

2. HELBURUA: Egonaldia amaitzean ikasleen balorazio orokorra 5,00 izatea.

Ekintzak:

- GoogleDocs inprimakiak erabiltzea ikasleei inkestak egiteko.
- Ikasleei azpimarratzea egonaldia amaitzen dutenean inkestei erantzuteko.

Arduraduna(k):

- Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea
- Nazioarteko Harremanetako teknikaria

3. HELBURUA: Egonaldia bukatzean ikasle atzerritarren balorazio orokorra 5,00 izatea.

Ekintzak:

- AEGEEREkiko lankidetzaren areagotzea adostu da, eskolara iristen diren atzerritarrei arreta emateko.

Arduraduna(k):

- Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea

4. HELBURUA: Truke programetan parte hartu duten azken promozioaren tituludunen ehunekoa % 25ekoa izatea lortzea.

Ekintzak:

- Nazioarteko programei buruzko informazio kanpaina areagotzea: 4 bilera orokor

Arduraduna(k):

- Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea